

Ebazpena: R025/2025

Espedientea: E074/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 24a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka honen xedea da zehaztea ea GFAREN eskumena den egiaztatzea ITMA SL zergapekoak (IFK: XXXXXXXXX1) 2018-2021 urteetako BEZari eta 2017-2020 ekitaldietako sozietateen gaineko zergari (aurrerantzean, SZ) dagokienez izan duen eragiketa-bolumena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 74/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- ITMA sozietateak Asturiasen du helbide fiskala; 2017-2021 ekitaldietan, 10.000.000 euro baino gehiagoko eragiketa-bolumena izan du, eta zergak ZAEARI bakarrik ordaindu dizkio (BEZa eta SZ).

2.- 2022ko maiatzaren 18an, GFak «egiaztatzeko eta ikertzeko» jarduketei ekin zien, zeinak Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren 144,3 artikulua,

2/2005 Foru Arauaren bidez onartuak, egiaztatze- eta ikerketa-prozedura (ikuskapen-prozedura) hasteko erabakiaren aurreko jarduketatzat hartzen baititu.

3.- Jarduketa horiek kontuan hartuta, GFAk informazio/dokumentazio hau eskatu zion zergapekoari:

a) 2018-21 ekitaldietako eragiketa-bolumena, bereizita adierazita Gipuzkoan, Kanarietan, Ceutan eta Melillan emandako zerbitzuen zenbatekoak.

b) 2017-20ko ekitaldietan ZAEARI egindako SZren aitortpenen kopia.

c) 2018ko urtariletik aurrera ZAEARI aurkeztutako BEZaren hileko aitortpenen kopia.

4.- Zergapekoaren erantzuna kontuan hartuta, GFAk administrazio ez-eskudunean sartzeko txosten bat egin zuen, eta 2022ko ekainaren 10ean ZAEARI bidali zion. Txosten horretan eskatzen zen egiaztatzeko zein zen aurrez aipatutako tributuekin eta aldiekin lotutako eragiketa-bolumena.

Txosten horretan, GFAk aipatu zuen zein zen, bere ustez, berari zegokion eragiketa-bolumenaren proportzioa.

5.- 2022ko ekainaren 21ean, ZAEAK informazioa eskatu zion GFARI, 2022ko maiatzaren 31ko txostenean jasotako kalkuluak lortzeko zergapekoari eskatutako dokumentuei buruz.

6.- 2022ko ekainaren 22an, GFAk erantzun zuen esanez eskatuta zuela hirugarren aurrekarian aipatutako informazioa.

7.- 2022ko abuztuaren 19an, ZAEAk eskatu zion GFari inhihi zezala egiaztapen hori egiteko eskumena, eta, ondorioz, 2022ko maiatzaren 31n txostena egin, eta urte bereko ekainaren 10ean bidali zuen.

8.- 2022ko irailaren 15ean, GFAk ez zuen onartu inhihizio-errekerimendua, eta bere eskumena berronetsi zuen.

9.- 2022ko urriaren 14an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, zeina 74/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.a) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai tributu itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean».

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordeak 16/2024 Ebazpenean (11/2020 gatazkan emandakoa) argitu zuen jada eztabaida hori. Beraz, haren zuzenbideko bigarren oinarria errepikatzen da, eta honakoa dio:

«Arbitraje Batzordeak dagoeneko zehaztu du bere iritzia Administrazioak ikuskatzeko eskumenik gabe egindako eragiketa-bolumenaren eta bolumen-proporzioaren egiaztapenaren irismenari buruz, ebazpen hauetan: 27/2013 (21/2010 gatazkari buruzkoa), 19/2022 (15/2016 gatazkari buruzkoa) eta 81/2023 (20/2018 gatazkari buruzkoa), eta efektu guztietarako errepikatutzat ematen ditugu.

Bada, aipatutako ebazpenetatik eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaz, zeina 2015eko maiatzaren 11ko epaian (ECLI:ES:TS:2015:2092) — 27/2013 Ebazpena berresten du— eta 2016ko maiatzaren 3ko epaian (ECLI:ES:TS:2016:1959) adierazten baita, argi eta garbi ondorioztatzen da GFAk egindako jarduketaren baliogabetasuna, ZAEAREN eskumena inbaditu zuelako, hala maila materialean nola lurralde-mailan.

Arbitraje Batzordeak 27/2013 Ebazpenean adierazi zuen ikuskatzeko eskumenik ez zuen administrazioak jarduketak egin zitzakeela bere lurraldean, baina ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu.

2092/2015 epaiak irizpide hori berronesten du; izan ere, horren arabera, aitortutako eragiketen “bolumen osoaren” egiaztapena bakarrik egin dezake ikuskatzeko eskumena duen administrazioak, administrazio bakoitzaren zergapetze-proporzioa zehazte aldera. Are gehiago, zehazten du ezen, aldundiak datu-bilketa soilak egin nahi bazuen (2006ko maiatzaren 18ko administrazioen arteko akordioetan xedatutakoaren arabera), ezin zuela beste zerga-administrazio batzuetan aurkeztutako aitorpenen kopiarik eskatu;

gehienez ere, aldundiaren lurraldean egindako eragiketen xehetasuna eska zezakeen.

Ilido beretik, 1959/2016 epaiak dio aldundiak, ordainarazpen-eskumena duenean, bere lurraldean jarduketak egin ditzakeen arren, ezin duela errekerimendurik egin bere lurraldean nahiz lurraldetik kanpo egindako eragiketa guztiak eskuratzeko, ez dituen ikuskapen-eskumenak erabiltzen dituelako».

Hori guztia, egiaztatzeko eta ikertzeko prozedura erabiltzearen desegokitasuna nabarmendu beharrik gabe. Izan ere, 19/2022 Ebazpenean (15/2016 gatazkan emandakoa) adierazitakoaren arabera, prozedura hori irmoa da, ez delako errekurritu, eta gainditu egiten ditu 1963ko Legean indarrean zegoen tributukudeaketarako prozedurak (*ratione temporis* aplikatzekoak) babesten zituen aukerak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- Adieraztea GFAk bere eskumenak gainditu dituela egiaztatu duenean zergapekoak zer eragiketa-bolumen egin duen 2018-2021 urteetako BEZari eta 2017-2020 ekitaldietako SZri lotuta.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ITMA SLri.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.